

Hiznet 15/16

sakontze egitasmoa



**Udal langileen ahozko
erabilera neurtuz**

"ezagutza ereinda... erabileraren kimuetara"

Gorka Barrenetxea Larrinaga
Tutorea: Olatz Altuna Zumeta

Eskerrik asko ondoan prestutasun osoz izandako Olatzi, eskerrik asko Lemoako Udalari, eskerrik asko Arratiako AEKri eta bereziki Etorri, eta, eskerrik asko Ahize-AEKri.

1- LABURPENA	4. or.
2- SARRERA	4. or.
3- HURBILPENA	5. or.
3.1- UDALERRIA	
Biztanleria	
Hizkuntza-gaitasuna	
Etxeko hizkuntzaren erabilera	
Hiztun tipologia	
3.2- UDAL LANGILEAK	
4- METODOLOGIA	21. or.
Neurketarako irizpideak	
Fitxa betetzeko oharrak	
Ikerketaren urratsak eta egutegia	
5- EMAITZAK	31. or.
5.1- EMAITZA OROKORRAK	
Landa-lana	
Lagina	
Emaitzak	
Emaitzak orokorren ondorio nagusiak	
5.2- EMAITZAK HERRITARREKIKO ETA UDAL LANKIDEEKIKO	
Herritarrekiko harremanetan	
Udal lankideekiko harremanetan	
Herritar eta udal lankideekiko emaitzen ondorio nagusiak	
6- HAUSNARKETA ETA PROPOSAMENAK	42. or.
7- ERANSKINAK ETA EMAITZA TAULA.....	52. or.
8- BIBLIOGRAFIA eta ERREFERENTZIAK	72. or.

1- LABURPENA

Euskararen erabilera areagotzea erronka dugun honetan, aukera egokienak baliatu eta aurrera eraman nahi ditugu euskalgintzan. Horretan dihardu Lemoako Udalak ere, eta Udalerri mailako ahozko euskararen erabilera areagotzeko Udal barruko zimenduak hartu nahi ditu oinarri.

Udalaren eta herritarren arteko harreman zuzen bezain eraginkorrena ahozko elkarreragina dugunez, bide horretan hautu egokienak aztertu eta martxan jarri nahi dira. Hala, Lemoako Udaleko langileek herritarrekiko eta beste Udal lankideekiko dituzten ahozko harremanetan murgilduko gara sakontze egitasmoan zehar.

2- SARRERA

Hiznet graduondoko sakontze egitasmoa toki entitate bateko langileen ahozko erabileraren neurketan oinarrituko da. Zehazki, Lemoako Udaleko langileen ahozko erabileran. Lemoako Udalak euskararen erabilera sustatzea bere plan estrategikoaren erdigunean du jasota, bai Udalerriara begira eta bai Udal barrura begira ere. Bide horretan, eredugarritasunaren eta lidergoaren sustraiak sendotu asmoz sakontze egitasmoa bultzatu eta babestu du Lemoako Udalak, jasoko diren emaitzekin ahalik eta etekin handiena lortzeko. Udal langileen euskararen **ahozko erabileraren neurketa** Lemoako Udalak dituen gune, instalazio edo egoitzetan, hala, langileen arteko harremanetan, nola, herritarrekikoenetan egingo da.

Arestian aipatutako eredugarritasun eta lidergoaren haritik tiraka luzerako eta askorako aztergaia dugu lidergoa (ikus: Hizkuntza lidergoa aztergai. 2011. Nekane Goikoetxea, Oihana Lujanbio eta Denis Elortza). Horrela, Lemoako Udalak erabilera areagotzeko bideak aztertu eta kudeatzeko lidergoaren lanabesa ere badu esku artean. Aldaketa emateko lidergo iraunkorra kudeaketa egokiarekin uztartu nahi du. Kudeaketa eta lidergoa, bakoitza bere bidetik, ez da bideragarria. Halatan, Lemoako Udalak langile taldea bultzatu, gidatu, asertibitatean jantzi, portaerak aktibatu, sareak sortu... nahi ditu. Taldekideen artean, hau da, euren norbanako zein taldekako eragin esparruetan, naturaltasunez euskara-sareak sortzea. Udalak bere osotasunean behar du izan eraldatzaile.

Horretan, besteak beste, Lemoako Udalak udal langileen ahozko erabileran eragin nahi du. Izan ere, sakontze egitasmo honetan aztergai dugun langile unibertso osoa euskalduna da. Lemoako Udalean 24 langile daude guztira (funtzionarioak, lanpostu

finkoak eta aldi baterakoak). Horietatik lanpostuaren ezaugarrien arabera, eta beste udal langile zein herritarrekiko harremanen maiztasunaren arabera 15 udal langileko unibertsoa dugu aztergai.

Euskararen erabilera langileen arteko harremanetan, nola, herritarrekikoenetan neurtzeko dagokion testuingurua ezagutu eta aztertzea beharrezkoa da. Udalerriko ezagutza, 2011ko Eustat-en azken datuetan oinarrituta, euskaldun kopurua herritarren % 54 da. Lemoako Udal mailako indizea (euskaldunak + ia-euskaldunak/2), Eusko Jaurlaritzaren 86/1997 dekretuari jarraiki, % 68 da (2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren datuetan oinarrituta).

Errealitate horren aurrean, udal gobernua eta udal langileen aburuz, udal langileen ahozko erabilera handiago da herritarrekiko harremanetan langileen beraien artekoetan baino. Halatan, hainbat aldagairen eragina badenik argi dago: herritarrekiko legedia/ordenantza, begirunea, ohiturak, harremanen intentsitatea eta maiztasuna, jarrera, sentsibilizazioa... Udal gobernu eta udal langileen uste hori aztertu eta aurrerabideak proposatu nahi dira.

Zergatik uste du Udalak, bai udal gobernuak eta bai udal langileek, handiagoa dela langileen euskararen erabilera herritarrekiko harremanetan langileen beraien artekoetan baino?

Herritarren ezagutza maila orokorra Udal langileena baino apalagoa da. Beraz, ezagutza maila ohitura baino eragin faktore ahulagoa ote da? Edota legedia (herritarrekiko harremanei lotutako legedi, hizkuntza irizpide, ordenantzak...) ohitura baino eraginkorragoa ote da erabileran eragiteko?

Horrenbestez, udal langileen hizkuntza erabilera abiapuntua hartu eta horien egunerokotasuneko jardunean herritar eta lankideen arteko ahozko hizkuntza erabilera neurtuz Udal gobernuaren eta Udal langileen uste hori aztertu, ondorioak atera eta aurrera begirako aterabideak proposatuko dira.

Oharra:

Sakontze egitasmoa Lemoako Udaleko langileen ahozko erabileraren neurketan eta ondoriozko emaitzetan oinarritzen da. Horrela, egitasmoak datu babeserako egungo araudiarekin bat egiten du. Hala ere, zeharkako datuen bitartez aise du irakurleak izaera pertsonaleko informazioa lortzerik. Hortaz, datu babeserako araua urratu ez dadin, Lemoako Udal gobernuari eta egitasmoaren parte diren Udal langileei beraien datuak baliatzeko, izen propiorik eman gabe, baimena eskatuko zaie. Era berean, datu babeserako egungo araudian jasotako arau eta jarraibideak kontuan hartu behar direla gogorarazi nahi da.

3- LEMOAKO UDALERRIKO ETA UDAL LANGILEEN DIAGNOSTIKORAKO HURBILPENA

Lemoako Udalak dituen gune, instalazio edo egoitzetan, hala, langileen arteko harremanetan, nola, herritarrekikoenetan ahozko elkarrizketak neurtuko dira. Ildo horretatik, bi azterketa bide nagusi bereizi behar dira. Batetik, Lemoako Udaleko udal langileak, eta bestetik herritarrak, hau da, Udalerrria eta Udala aztertuko ditugu. Bakoitzari dagokion fokoa jarriko diogu; berezitasunak, ezaugarriak eta egindako ibilbidea aztertuz. Bi aztergai horien ebaluazio-diagnostikoa dugu jarraian.


Aipatu bezala, Lemoako Udalerrriaren diagnostikoarekin hasiko dugu hurbilketa herritarren inguru soziolinguistikoa argiago ezagutzeko. Ondoren, aztertu beharreko beste ildoak, berriz, Lemoako udala dugu. Bertako langileen ebaluazioan jarriko dugu arreta.

Bi multzo horien azterketarako metodologia objektiboak (eustat datuak, Udalerrri datuak...) eta subjektiboak (pertsona eta langileen iritzi eta pertzepzioak) uztartuko ditugu. Izan ere, herritarren zein langileen pertzepzioei datu objektiboen besteko sinesgarritasuna eta eraginkortasuna aitortzeak ikerketaren xedea elikatu, osatu eta eraginkorrago egiten du. Baina, horrek ez du bien arteko osagarritasuna erabatekoa denik ondorioztatzen. Izan ere, kasuan kasuko metodologiak, helburu zein abiapuntuak, ikerketaren baldintzatzaileak eta mugak... metodologia ezberdinak onartu eta bultzatzen ditu. Beraz aipatutakoak kontuan izanik, euskalgintzako gizarte-zientzien arloan gero eta onartuagoa den planteamenduak bi lan ildoen jarraibidea proposatzen du.

3.1- Lemoako Udalerrria

Biztanleria

Lemoak 2.681 biztanle zituen 2001an Eustateko datuen arabera. Hurrengo 10 urteetan biztanleria kopuruak gora egin du bizkor, eta 2011ko datuen arabera 3.468 biztanleria izatera heldu zen. Igoera azpimarragarria, izan ere hamarkada batean % 29 igo da. Igoera hori, batez ere, 20-64 urte arteko helduen artean eman da (ikus 1.taula eta irudia). Horrek herrian inpaktu handia izan du, eta era berean, soziolinguistikoki herria aldatu egin da. Besteak beste, euskararen ezagutza, erabilera... gutxitu egin da. Efektu horrek era berean, eta zeharka bada ere, herriko euskaldunen euskararen erabilera gutxitzea ere eragin du.




Arestian aipatutako % 29-ko igoera horretan eragin zuzena izan du hamarkada horretako etxebizitzaren prezioen gorakadak. Hots, Lemoako herrira bizitzera etorritako asko Bilbo-handiko metropolitik etorri dira, orduko hartan merkeagoa baitzen etxebizitzaren prezioa m²-ko. Hau da, hiriburuetatik inguruko gertuko herrietara joan dira bizitzera. Bertara gerturatu diren gehienak familia gazteak dira nagusiki, guraso berri edo gurasogaiak. Horiek, beheko 2.irudiko 20-64 adin tarte esanguratsuaren barnean kokatuko ditugu. Izan ere jarraian ikusiko dugun bezala, pisu handia dute.

2.irudia: Lemoako biztanleriaren bilakaera 2001-2011, %. (taulan balio absolutuak)

	2011	2006	2001
0-19	619	479	459
20-64	2253	1851	1662
>65	596	612	560

Iturria: Eustat




20-64 urte arteko datu hori urte tarte txikiagotara ekarri eta aztertuz gero, arestian aipatutako ondorioa azalarazten da: 2001-2011ko hamarkadan guraso berri eta gurasogaien gorakada nabarmena eman da. Gorakada nagusia 30-34 eta 35-39 urte artekoen artean eman da nagusiki, % 57 (143 biztanle) eta % 92 (191 biztanle) igoz hurrenez hurren.

3.irudia: 20-65 urte arteko (5 urteka) bilakaera 2001-2011, %. (taulan balio absolutuak)

	2001	2006	2011
20-24	191	160	145
25-29	274	280	269
30-34	253	312	396
35-39	207	265	398
40-44	203	208	279
45-49	143	216	230
50-54	150	149	228
55-59	114	159	155
60-64	127	118	159

Iturria: Eustat




2001-2011 hamarkadako Lemoako Udalerriko migrazio mugimenduen saldoak ere argi erakusten du izandako aldaketa. Aurreko hamarkadako migrazioa saldoekin alderatu dugu, beheko grafikoan ikusgai, eta urterik urte emandako igoera aski nabarmena da. Herria denbora tarte laburrean eraldatu egin da demografikoki. Eta jarraian ikusiko dugun bezala, aldaketa demografiko horrekin batera emandako aldaketa soziolinguistikoak ere nabarmenak izan dira.

4.irudia: Migrazio saldoaren bilakaera 1991-2011, balio absolutuak

urtea	migrazio saldoa	urtea	migrazio saldoa
1991	-42	2002	64
1992	-30	2003	32
1993	-32	2004	26
1994	-16	2005	-2
1995	-2	2006	140
1996	-28	2007	140
1997	-13	2008	40
1998	27	2009	78
1999	61	2010	119
2000	66	2011	90
2001	64		

Iturria: Eustat





Hizkuntza gaitasuna (>5 urte)

Herriko biztanleria hazkundearekin batera, hizkuntza gaitasunari dagokionean Lemoako udalerria erdaldundu egin da 2001-2011 hamarkadan. 5 urtetik gorako herritarren elebidun¹ kopuru absolutua handitu bada ere (168 elebidun gehiago), herrian daukaten pisua (proportzioa) jaitsi egin, % 62 izatetik % 54 izatera pasaz. Herritarren artean elebakarren¹ kopuruak gora egin du 357 elebakar gehiago daudelarik, herritarren % 20 izatetik % 27 izatera igaroz. Lemoako herriaren euskara hizkuntza gaitasunak ez du biztanleriaren hazkunde-tasa mantendu, hau da, elebidunen kopurua % 10 (168 pertsona) handitu da 2001-2011 hamarkadan, eta biztanleria tasa, aldiz, % 29 (787 pertsona) igo. Beraz, elebakarren kopurua oso kontuan hartu behar da % 68 igo baita (522 izatetik 879 pertsona izatera).

5. irudia: hizkuntz gaitasunaren bilakaera (>5 urte) 2001-2011, % eta balio absolutuak

	2001	2006	2011
Elebidunak¹	1.582	1.581	1.750
Elebidun hartzaileak	443	531	587
Elebakarrak (gaztelania)	522	649	879
Guztira	2547	2.761	3.216



Iturria: Eustat

1 Elebiduna: euskaraz dakiena da. Eleanitza izan badaiteke ere ulergarritasuna eta aplikagarritasuna errazteko sinplifikatuta.

Elebakarra: euskaraz ez dakiena da. Elebiduna zein eleanitza izan badaiteke ere, ulergarritasuna eta aplikagarritasuna errazteko sinplifikatuta.

Hizkuntza gaitasunaren bilakaera **adin tarteka** aztertuz gero, elebidun kopuruaren jaitsiera nagusia helduen artean eman da, zehazki, adin tartekak gora egin ahala jaitsiera nabarmenagoa (ikus beheko taulan gorritz markatutakoak). Elebakarren kopuruak, aldiz, gora egin du adin tarte berdintsuetan. 40-64 urte arteko heldu elebidunen jaitsiera eta elebakarren igoerak herriko hazkundearen gainetik dira (% 29). Bestekak beste, 50-54 urte artekoen elebidun kopurua % 50 jaitsi da.

3. taula: euskara ezagutzaren bilakaera 2001-2011, adin tarteka, (20-64 urte), % eta balio absolutuak

Adin tartekak		20-24		25-29		30-34		35-39		40-44		45-49		50-54		55-59		60-64	
2001	elebidunak	%78	149	%54	149	%41	106	%38	80	%47	97	%57	82	%56	84	%67	77	%59	76
	elebakarrak	%7	15	%18	51	%24	61	%29	61	%22	46	%25	37	%28	43	%17	20	%28	36
2011	elebidunak	%76	111	%61	166	%51	202	%43	172	%39	109	%35	82	%36	83	%46	72	%47	75
	elebakarrak	%16	24	%23	64	%24	96	%28	115	%33	93	%37	86	%42	96	%32	51	%37	59

Iturria: Eustat


Etxeko hizkuntzaren erabilera (>5 urte)

Bost urtetik goragokoen etxeko euskararen erabileran jaitsiera nabarmena izan da. Hamar urteren buruan etxean erdara (gaztelania nagusiki) erabiltzen dutenen kopurua % 37 handitu da (17 puntu). Horrekin batera, etxeko euskararen erabilera ia % 30 jaitsi da hamarkada berean. Lemoako biztanleen artean ia bi herenek gaztelania darabilte egunerokoan etxean. Beraz, arestian aipatutakoaren haritik, hau da, biztanleria hazkunde nagusia 30-45 urte bitartekoen artean eman dela; igoera horrek etxeko euskararen erabileraren jaitsieran eragin du, inolaz ere.

2. taula: euskararen etxeko erabileraren bilakaera 2001-2011, balio absolutuak, >5 urte

	2011	2006	2001
Euskara	803	810	882
Euskara eta gaztelania	396	463	491
Erdara	2017	1488	1174
Guztira	3.216	2.761	2.547

6. irudia: euskararen etxeko erabileraren bilakaera 2001-2011, %



Iturria: Eustat

Aipatu berri den etxeko euskararen erabileraren jaitsierak, eta etxeko erdararen erabilera igoerak are nabarmenagoak dira adin tarteka aztertuz gero. Hau da, etxeko euskararen erabileraren eta etxeko erdararen erabileraren arteko aldea handitu egin da adin tarte guztietan. Igoera modu berezian eman da 25-49 urte artekoen artean. Horietariko asko guraso dira, eta etxean erabiltzen den hizkuntzaren ardura dute.

3.taula:euskararen etxeko erabileraren 2001-2011 bilakaera adin tarteka, % eta balio absolutuak


Adin tartekak		20-24		25-29		30-34		35-39		40-44		45-49		50-54		55-59		60-64	
2001	elebidunak	%36	69	%25	69	%18	46	%22	47	%30	61	%32	46	%38	58	%45	52	%39	50
	elebakarrak	%46	89	%55	153	%62	157	%55	115	%47	96	%44	64	%44	66	%37	43	%44	56
	aldea	10,5	20	30	84	44	111	33	68	17	15	12	18	6	8	-8	-9	5	6
2011	elebidunak	%21	31	%18	49	%17	70	%18	73	%16	46	%17	41	%24	56	%34	53	%32	52
	elebakarrak	%61	89	%70	190	%70	280	%71	284	%71	200	%69	159	%63	144	%52	82	%59	94
	aldea	40	58	52	141	53	210	53	211	55	154	52	118	39	88	18	29	27	42

Iturria: Eustat

Hiztun tipologia²

Herritarren tipologia ere, nola ez, eraldatu egin da hamarkada horretan. Horrek, Udalarri eragin beharreko xede-talde berriak aztertu eta beraiei egokitutako neurriak hartzeko aukera emango dio. Horrela, beheko irudiko datuak behatuz, euskaldun zaharren² kopurua 14 puntuan jaitsi da 2001-2011 hamarkadan; eta jaitsiera hori erdaldun zaharren igoera eta euskaldun berrien igoerarekin konpentsatu da neurri batean bederen, 6 puntu eta 5 punturekin hurrenez hurren.

7.irudia: herritarren euskara tipologiaren bilakaera 2001-2011, %, (taulan balio absolutuak)



	Euskaldun zaharrak	Jatorrizko elebidunak	Euskaldun berriak	Partzialki euskaldun berriak	Partzialki erdaldunduak	Guztiz erdaldunduak	Erdaldun zaharrak
2001	1230	104	248	355	88	9	513
2011	1094	163	493	496	91	38	841

Iturria: Eustat

2-Euskaldun zaharrak: Ama-hizkuntza euskara izan eta euskaraz "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

-Jatorrizko elebidunak: Ama-hizkuntza euskara eta erdara izan, eta euskaraz "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.

-Euskaldun berriak: Ama-hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak.


-Partzialki euskaldun berriak: Ama-hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz "nekez" hitz egin edo, hitz egiten ez badute, "ondo" ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

-Partzialki erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan eta euskaraz "nekez" hitz egin edo, hitz egiten ez badute, "ondo" ulertu eta irakurtzen duten pertsonak.

-Guztiz erdaldunduak: Ama-hizkuntza euskara edo euskara eta erdara izan eta euskaraz ez hitz egin, ez "ondo" ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak.

-Erdaldun zaharrak: Ama-hizkuntza euskara ez den beste hizkuntza bat izan eta euskaraz ez hitz egin, ez "ondo" ulertu eta ez irakurri egiten duten pertsonak.

Jarraian, 2001-2011 hamarkadako herritarren tipologia **adin tarteka** aztertuko da. Herritarren eta Udal langileen arteko ahozko erabilera dugunez aztergai, herritarren ahozko erabilera bi multzo nagusitan bateratuta jasoko dugu: batetik, euskara ahozkoan zailtasunik gabe erabiltzeko gai direnak (*ahozkoan gaitasun egokia*: euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak), eta bestetik, ahozkoan zailtasunik dituztenak (*ahozkoan gaitasun ez egokia*: partzialki euskaldun berriak, partzialki erdaldunak, guztiz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak).



35 urtetik gorako herritarren euskara gaitasuna eraldatu egin da nabarmen. Ahozko gaitasun egokiaren bilakaera (2001-2011) aztertuz gero, 35 urte arteko herritarren gaitasun egokiak (euskaldun zaharrak, jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak) gora egin du zertxobait. Aldiz, 35 urtetik gorakoen ahozko euskararen gaitasun egokiak behera egin nabarmen; 40-60 urte artean batez ere.

Balio absolutuak

	2001		2011	
	Ahozkoan gaitasun egokia	Ahozkoan gaitasun ez egokia	Ahozkoan gaitasun egokia	Ahozkoan gaitasun ez egokia
20-24	149	42	111	34
25-29	149	125	166	103
30-34	106	147	202	194
35-39	80	127	172	226
40-44	97	106	109	170
45-49	82	61	82	148
50-54	84	66	83	145
55-59	77	37	72	83
60-64	76	51	75	84
65-69	123	56	73	46

Iturria: Eustat

Bestalde, euskararen gaitasun ez egokiak (partzialki euskaldun berriak, partzialki erdaldunak, guztiz erdaldunduak eta erdaldun zaharrak) gora egin du gaitasun egokiaren kontrako joera islatuz. 50 urtetik gorako pertsonen erdiak baino gehiagok ez du gaitasun nahikorik euskaraz egokiro mintzatzeko.

Goiko irudiak lagungarriak dira herrian eman den aldaketa soziolinguistikoa ulertzeko.

3.2- Udal langileak

Lemoako Udaleko langileen euskara erabilera eta ezagutza aztertzeke metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa baliatuko dugu. Eusko Jaurlaritzaren eskutik jasotako arauditik hasiko gara, ondoren langileen euskararen erabileraren pertzepzioa aztertuko dugu. Horretarako, Lemoako Udalaren Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017 diseinatu aurreko ebaluazio-diagnostikoa erabiliko dugu. Azkenik, administrazioko langileek sentsibilizazio eta formazioarekin lotutako hainbat proiektutan jasotako informazioa ere erabiliko dugu.

Erabilera planak arautzen dituen 86/1997 Dekretuaren arabera, IV. Plangintzaldirako Lemoaren derrigortasun indizea 72,98 izan zen, eta V. Plangintzaldirakoa, hau da egungoa, aldiz, %68,97. Hurrenez hurren 2001 eta 2006ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikan euskararen ezagutza mailari buruz jasotako datuetan oinarritzen dira datu horiek. Udalak aitortu bezala, indize-jaitziera horren aurrean ez zen aparteko irakurketarik edo neurririk hartu.

Aipatutako 86/1997 dekretuari jarraiki Lemoako Udaleko % 72,98ko IV. Plangintzaldirako indizeak (% 70 - % 100) hurrengo betebeharra du:

"Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak, gizarte-izaerako atal elebidunak eta izaera orokorreko atal elebidunak ezarriko dira. Gainera, pixkanaka, euskarazko administrazio atalak jarriko dira, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera."

Aldiz, % 68,97 egungo indizeak, V. Plangintzaldirakoak alegia, hurrengo derrigorrezko betebeharra (% 45 - % 70) du:

"Administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera."

Udalerrian eman diren aldaketa sozio-demografiko eta soziolinguistikoak tarteko, Lemoako Udaleko administrazio mailako euskararen lege aldetiko betebeharren eskakizun maila apaldu bada ere, Lemoako Udalak IV. Plangintzaldirako indizea du oraindik orain oinarri bere egunerokotasuneko egitekoen jardunean.

Langileen euskara ezagutza dela eta, herritarrekin hartu-emanen maiztasun handiena duten 15 langile hartu ditugu. Ez da langileen administrazio-izaeraren (azpikontratatua, funtzionarioa, behin-behinekoa...) arabera bereizketarik egin, langileek beraien artean zein herritarrekin duten harremana hartu da kontuan. Ahozko erabilera neurtuko da; bai langileen beraien artean, eta bai herritarrekiko harremanetan. Hori horrela, Udaleko lanpostuetako langileen hizkuntza eskakizun aitortuak eta langileei egindako azterketa linguistikoaren (lanpostuaz gaindiko hizkuntza gaitasuna aztertzeko) emaitzak gurutzatuta langileen hurrengo ahozko ezagutza dugu.

4. taula: Udal langileen ahozko ezagutza

	Lanpostua	Ahozko ezagutza ³		Gunea /saila
		Nahikoa	Ona	
1	Alkatea		x	Udaletxeko administrazioa (2)
2	Idazkaria	x		Udaletxeko administrazioa (2)
3	Administraria		x	Udaletxeko administrazioa (2)
4	Administraria		x	Udaletxeko administrazioa (2)
5	Aparejadore		x	Hirigintza eta ingurumen sailak (3)
6	Udaltzaina		x	Udaletxeko administrazioa (2)
7	Kultura teknikaria		x	Kultura, qizartegintza, berdintasuna (4)
8	Gizartegintza teknikaria		x	Kultura, qizartegintza, berdintasuna (4)
9	Berdintasun teknikaria		x	Kultura, qizartegintza, berdintasuna (4)
10	Administrari laguntzailea		x	Udaletxeko harrera (1)
11	Arkitektoa		x	Hirigintza eta ingurumen sailak (3)
12	Ingurumen teknikaria	x		Hirigintza eta ingurumen sailak (3)
13	Liburuzaina		x	Liburutegia (7)
14	Kiroldegiko harrera		x	Kiroldegiko harrera (5)
15	Kiroldegiko gimnasioa		x	Kiroldegiko gimnasioa (6)

Langile guztiek dute euskaraz mintzatzeko gaitasun egokia. Bi langilek beste langileen euskara maila bera izan ez arren, ez dute inolako arazorik euskaraz beste lankideekin zein herritarrekin mintzatzeko.

³ Nahikoa: Marko orokorreko 1.HE (hizkuntza eskakizuna) pareko maila. Ahozko elkarreragina eta adierazpena egokia.
Ona: Marko orokorreko 1. HE-tik goragoko maila. Ahozko elkarreragina eta adierazpena ona.

Iritziak eta pertzepzioa

Udal langileen iritzi eta pertzepzioak jasotzea ezinbesteko dugu ahozko erabileraren azterketa hau bideratu aurretik. Horretarako, lehendabizi, 2012an Lemoako Udalean 2013-2017 Euskararen Plan Estrategikoa diseinatu aurretik, aurreko legegintzaldiko Euskararen Plan Estrategikoaren ebaluazio-diagnostikoa kontuan izango dugu. Bertan, administrazio arloko Erabilera Plana diseinatu eta programatzeko 15 udal langileri egindako elkarrizketetatik hurrengo AMIA (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak) osatu zen. Funtsean, bertan jasotako iritzi, uste, pertzepzioak jaso ditugu jarraian:

AMIA matrizea

Indarguneak	Ahuleziak
- Euskara plana abian izatea. - Euskara zerbitzua izatea oso garrantzitsua eta baliagarria da. - Udalaren jarrera. Alkateak eta hainbat zinegotzik euskararen aldeko konpromisoa eta jarrera daukate. - Udaleko langileek euskara ikasteko eta erabiltzeko erakutsi duten interesa. - Udaleko langileen gehiengoa euskalduna da. - Harreran ere lehen hitza beti euskaraz. Horrela, euskara erabiltzeko gonbita luzatuz. - Komunikabideetan, karteletan, oharretan, publizitatean... euskararen presentzia bermatuta. - Derrigortasun datak eta hizkuntza eskakizunak betetzen dira oro har. Batez ere, arlo formalean.	- Sail, solaskide, ohitura, gai formal/informal eta bestelako faktoreek euskararen erabilera oztopatu. - Alderdi politikoek ez dute behar besteko ahalegina eta jarrera euskara sustatzeko. Udaleko langile eta arduradun politiko gehienek ezagutza bermatuta izatea eta hori erabileran ez islatzea. Eguneroko egoera eta jardun arruntetan, askoz gehiago erabili daitekeela gaineratu dute. - Hainbat urtetan ez da behar bezala aprobetxatu Lemoako Udalaren potentziala. Hau da, Lemoako Udalean langileriaren % 90etik gora euskalduna da eta eguneroko lanean erabilera aldetik, bai idatziz zein ahoz, aurrerapauso gehiago eman zitezkeen. - Irizpide eta ordenantzarik ez izatea. - Ez da erabilera plana ezagutzera ondo eman. - Idatzizko komunikazio formalean, ofizioak, txostenak, aktak, ebazpenak, eskabideak... egiteko irizpide bateraturik ez izatea. - Itzulpen lanek eguneroko lan prozesu administratiboak atzeratu egiten ditu. - Langileen formazioan euskarazko eskaintzarik ez. - Euskara taldeak sortzeko eta antolatzeke orduan koordinazio edo aukera zabalagoa bilatu behar da. - Azken urteetan udalerrian eman diren aldaketa soziolinguistikoei erantzuteke ez da neurririk hartu. - Udal langileen artean ahozko hizkuntza ohiturak oso erroturik daude. - Euskara Lemoako Udalean lo zorroan egon da. Udaleko eragileen jarrera ona da, konpromisoa eta errealitatea ulertzea falta da.

Aukerak	Mehatxuak
- Herri txiki eta euskalduna da, eta hori, batez ere herriko inguru eta auzo zehatz batzuetan nabari da. Hortaz, gune horien indarra eta aberastasuna Udalaren erabilerara iristen da. - Udalbatzako zinegotzien gehiengoa euskaraz mintzatzeko gai da. - Udaleko langile eta ordezkari politikoen artean masa kritikoa dago eta hori ekimenak aurrera eramateko bultzada edota babesa da. - Adineko langileak egoteak etorkizunean euskara gaitasuna egiaztatuta duten langile berriak sartzea dakar. - Jendearengana hurbiltzeko web gunearen aukera eta indarra. - Elkarriketatuen ustez, orokorrean eguneroko egoera eta jardun arruntetan, askoz gehiago erabili daitekeela gaineratu dute.	- Hainbat pertsonen jarrera “Niri gaztelaniaz egiten badidate, gaztelaniara jotzen dut.”, “Nahikoa da bat gaztelaniaz hastea besteek jarraitzeko”. - Udaleko eragile batzuen konpromiso falta aurrerapausoak emateko. - Elkarriketa informaletan gaztelaniara jotzeko ohitura. - Arduradun politiko batzuen jarrera ezkorra euskararekiko. - Tramitazio telematikoak egin nahi dituzten herritarrek gaizki-ulertuak ekiditeko gaztelania erabiltzen dute. - Udaleko sail guztiek norabide bakarra eta bateratua ez izatea. - Administrazioetatik Euskararen erabilera eta sustapenerako diru-laguntzetan eman diren murrizketak. - Udalak erabilerari lotuta hartutako erabakien aurrean oztopoak eta trabak egotea. - Baliabide informatikoen kudeaketan euskaraz jardun ahal izateko formazio eskaintza gabezia.

Gris kolorez nabarmendutako Udal langileek aipatutako ahulezia eta mehatxuak lotuta daude sakontze egitasmo honekin. Hau da, Udal gobernuak euskararen inguruko udal langileen pertzepzioak eta usteak ere kontuan hartu eta bide eman dio esku arteko ahozko erabileraren neurketari.

Neurketen metodologian barneratu aurretik Udal langileen harremanen maiztasuna ere jaso dugu. Horrekin batera, Udal langileek beste Udal langileekin duten euskara erabilera aztertzeke mintzagrama pasa zaie. Mintzagraman udal langileen arteko euskararen erabileraren gaineko pertzepzioa jasoko dugu. Horrela, langileen arteko harremanen maiztasuna eta euskararen erabileraren gaineko ikuspuntua lagungarri eta baliagarri izango zaigu emaitzen irakurketa argiago eta zuzenagoa egiteko.

5. taula: Udal langileen arteko harremanen maiztasuna

Langileei hurrengo galdetu zaie: "Zenbat denbora ematen dut harremanetan nire lankideekin?"

Oso gutxi (1), Gutxi (2), Tartekoa (3) , Nahiko (4), Ask (5)

	Norekin	Alkatea	Idazkaria	Administraria I	Administraria II	Aparejadorea	Udaltzaina	Kultura	Gizartegintza	berdintasuna	Harrera Udala	Arkitektoa	Ingurumena	Liburutegia	Kiroldegiko harrera	Kiroldegiko gimnasioa
1	Alkatea		5	5	5	5	5	5	5	5	5	4	5	3	3	3
2	Idazkaria	5		5	5	5	3	2	2	2	3	2	3	1	1	1
3	Administraria I	5	5		5	4	4	3	3	3	4	3	3	2	2	2
4	Administraria II	5	5	5		4	4	3	3	3	4	3	3	2	1	1
5	Aparejadorea	5	5	5	5		5	3	3	3	4	5	4	2	3	1
6	Udaltzaina	5	4	5	5	4		4	3	3	4	3	3	2	2	1
7	Kultura	5	3	4	4	4	4		5	4	4	3	3	3	3	3
8	Gizartegintza	5	2	3	3	3	4	5		3	3	3	2	3	3	3
9	Berdintasuna	3	3	3	3	3	3	3	3		3	2	2	2	1	1
10	Harrera udala	5	4	5	5	5	5	5	4	3		4	4	2	2	1
11	Arkitektoa	5	4	4	4	5	4	4	3	2	4		4	2	2	1
12	Ingurumena	4	4	4	4	4	4	3	3	2	3	4		1	1	1
13	Liburutegia	3	2	4	4	1	2	4	4	3	3	1	1		1	1
14	Kiroldegiko harrera	4	2	3	2	2	3	3	5	1	2	2	2	1		5
15	Kiroldegiko gimnasioa	2	1	2	1	1	1	2	3	1	1	1	1	1	4	
	Batez beste	4,2	3,5	4,07	3,93	3,57	3,64	3,5	3,5	2,72	3,35	2,85	2,85	1,92	2,0	1,7

Lemoako Udaleko langileen arteko harremanen maiztasuna eta zerbitzuen kokagunea oinarri bezala hartu dira neurketak 7 gunetan multzokatzeko. Izan ere, lanpostuaren berezitasunak, lanpostua kokatutako toki eta beste udal langileekin zein herritarrekin duen harremanen maiztasuna hartu dugu kontuan Udal langileak hurrengo 7 gunetan taldekatzeko:

1- Udaletxeko harrera: administrari laguntzailea.

2- Udaletxeko administrazioa: Alkatea, idazkaria, administraria I, administraria II, udaltzaina.

3- Hirigintza eta ingurumen sailak: arkitektoa, aparejadorea eta ingurumen teknikaria

4- Kultura, gizartegintza eta berdintasuna: kultura teknikaria, berdintasun teknikaria eta gizartegintza teknikaria.

5- Kiroldegiko harrera: harrerako administraria

6- Kiroldegiko gimnasioa: gimnasioko entrenatzaile/monitorea

7- Liburutegia: liburutegia

Udal langileek beste Udal lankideekin aitortutako harremanen maiztasunaren taula arretaz behatuta, ahozko harremanetan hiru geruza nagusi bereizi daitezke. Geruza bakoitza harremanen maiztasunaren arabera banatuta:

6. taula: Udal langileen arteko harremanen maiztasuna geruzaka		
Geruza	harremanen maiztasuna	Guneak
1. geruza	Handia (3,5-5)	Administrazioa (2)
2. geruza	Ertaina (2-3,5)	Hirigintza eta ingurumen sailak (3) Kultura, gizartegintza eta berdintasuna (4) Harrera (1)
3. geruza	Txikia (1-2)	Kiroldegiko harrera (5) Kiroldegiko gimnasioa (6) Liburutegia (7)

Beraz, administrazio gunean dauden langileak dira beste Udal lankideekin batez besteko ahozko-harreman maiztasun handiena dutenak. Bigarren maila batean, hirigintza eta ingurumen sailak; eta, kultura, gizartegintza eta berdintasuna; eta, Udaleko harrera ditugu. Azkenik, beste udal langileekin harreman maiztasun txikiena dutenak liburutegia, kiroldegiko harrera eta kiroldegiko kiroldegia dira.

Lehenengo eta bigarren geruza horietako langileen artean ematen da ahozko harremanen bolumen nagusia. Hori horrela, 1. eta 2. geruzetako langileen arteko mintzagrama jaso da. Zehazki langileen pertzepziotik beraien arteko ahozko harremanen hizkuntza erabilera ezagutzeko aukera dugu jarraian.

Mintzagrama osatzeko langileek beraein arteko hizkuntza harremana jaso dute (mintzagrama galdetegia eranskinetan). 1-5 arteko balorazioa jaso dute, 1 beti gaztelaniaz eta 5 beti euskaraz delarik. Beheko taulako (9.aula) gelaxka bakoitzean lankideen arteko bikotetako harremanaren batez bestekoa ikus daiteke. Zehazki, bikoteko kide batek besteari hitz egitean erabiltzen duen hizkuntza, eta alderantziz, beste lankideak berari egiten diona; hau da, langile bakoitzaren “nik berari” eta “berak niri” hizkuntza harremana jaso da. Adibidez: Alkatearen pertzepziotik: alkateak administrariarekin hitz egiten duen hizkuntza; eta administrariak berari hitz egiten diona. Eta era berean, hori berori administrariaren pertzepziotik. Beraz, 4 zenbakiren batez bestekoa dugu beheko mintzagrama-aulako gelaxka bakoitzean.

7.taula: Udal langileen arteko harremanen hizkuntzaren erabilera mintzagrama

- 1) Beti gaztelaniaz
- 2) Ia beti gaztelaniaz
- 3) Bietan berdin
- 4) Ia beti euskaraz
- 5) Beti euskaraz

	Norekin Nork	Alkat ea	Idazka ria	Adminis traria I	Adminis traria II	Aparej adorea	Udalt zaina	Kultura	Gizarte gintza	berdin tasuna	Harrera Udala	Arkite ktoa	Inguru mena
1	Alkatea		1,5	5	4,5	5	4,75	5	5	5	5	5	3
2	Idazkaria	1,5		1,75	1,75	1,5	1,75	1,5	3	2	1,5	1,5	1
3	Administrari I	5	1,75		4	3,5	4	5	5	4,5	4	5	2,5
4	Administraria II	4,5	1,75	4		4,25	4,5	5	5	5	4	4,25	3
5	Aparejadorea	5	1,5	3,5	4,25		4,5	5	5	5	4	5	2,5
6	Udaltzaina	4,75	1,75	4	4,5	4,5		5	5	5	4	5	2,5
7	Kultura	5	1,5	5	5	5	5		5	5	4,5	5	4
8	Gizartegintza	5	3	5	5	5	5	5		5	5	5	4
9	Berdintasuna	5	2	4,5	5	5	5	5	5		5	5	4
10	Harrera udala	5	1,5	4	4	4	4	4,5	5	5		4	4
11	Arkitektoa	5	1,5	4	4,25	5	5	5	5	5	4		3
12	Ingurumena	3	1	2,5	3	2,5	3,5	4	4	5	4	3	
Batez beste		4,06	1,70	3,93	4,11	4,11	4,27	4,54	4,72	4,69	4,10	4,34	2,99

Ahozko harremanen sarean maiztasun handiena duten langileen arteko mintzagrama horretan langileen pertzepzioa jaso da. Bi langilek izan ezik, beste guztiek beraien arteko harremanetan ia beti euskaraz darabiltela aitortu dute, 4tik gorako puntuazioa lortuz batez beste eguneroko harremanetan beste lankideekin. Beraz, mintzagramaren irakurketa hurrengoa da: harreman maiztasun handiena duten 12 langiletik 10ek euskara erabiltzen dute ia beti ahozko harremanetan.

4- METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez Soziolinguistika Klusterrak (info+ www.soziolinguistika.eus webgunean) erabileraren neurketak egiteko garatutako metodologia hartuko da oinarri, bai, laginketa egiteko orduan, baita neurketa egiteko orduan ere.



Egun ditugun datuen arabera, honako hau da proposamen metodologikoa:

▪ **Udal langileen arteko erabileraren neurketa egiteko:**

- Lemoako Udaleko gunetan ari diren 15 langile (karrerako funtzionarioak, lanbidezko finkoak, hainbat sailetan azpikontrataturako langileak...) kontuan hartuko dira neurketan. Euskararen ahozko ezagutza maila egokia langile guztiek dute. Herritarrekin eta langileen arteko harremanak kontuan hartuko dira ahalik eta lagin adierazgarriena aukeratzeko.
- Neurketa diseinatzerakoan, lantokietako erabileraren neurketaren laginketa-tresna erabiltzeko hautua egin da. Izan ere, Lemoako udalaren zerbitzuak askotarikoak izanik, edozein adinetako herritarrak du harekin harremanetan jartzeko aukera Udal langileekin.
- Konfiantza-maila: % 95 / Errore-maila: ± 5 / Jaso beharreko gutxieneko lagina: 28 elkarrizketa.
- Gune bakoitzean jasotako datu guztiak batu eta ustiatuko dira, beraz, 41 edo 66 elkarrizketa jasoz gero, errore-maila jaitziko litzateke, hurrenez hurren, ± 4 edo ± 3 .
- Neurketak 3 egunetan egin: astelehena, astearte eta osteguna.

- Neurketaren iraupena: gunee bakoitzean ordu 1 egunetako bakoitzean. Aurreikusitakoak baino datu gehiago jasoz gero, lagin esanguratsuagoa lortzeko baliatuko dira.
- Ordutegia: Astelehena 10:00-11:00, 11:00-12:00, / Asteartea 11:00-12:00/ Osteguna 12:00-13:00. Udaleko guneeetako ordutegietan aldaketarik bada, beste ordu edo egunen bat erabiliko da. Arratsaldean egin behar den guneeetan: Astelehenean 17:00-18:00 / Asteazkenean 18:00-19:00.
- Elkarrizketen hizkuntza neurtzeaz gain, udal-langilearen aldetik agurra zein hizkuntzatan izan den, eta, beste langileak euskaraz egin badu, langilea nola egokitu den ere neurtuko da.
- Langile guztiak talde bakar gisa hartuz gero, 28 elkarrizketa izango lirateke gutxieneko lagina, eta gunee bakoitzean dagoen langile kopuruaren arabera banatu dugu.
- Elkarrizketak jasotzeko ahalik eta konbinaziorik handiena hartzen saiatuko ginateke: gunee bakoitzeko pertsona guztiak, eta ez soilik hiztunenak egoera formal eta informalak...

8. taula: langileen arteko elkarrizketa lagina guneka (gutxieneko aurreikuspena ⁴)		
guneeak	langileak	elkarrizketak guztira (borobilduta)
1- Udaletxeko harrera	1	2
2- Udaletxeko administrazioa	5	10
3- Hirigintza eta ingurumen sailak	3	6
4- Kultura, berdintasuna, gizartegintza	3	6
5- Kirolddegiko harrera	1	2
6- Kirolddegiko gimnasioa	1	2
7- Liburutegia	1	2
GUZTIRA	15	28

- Lau gunetan langile bakarra izan arren, Udaletxeko harrera eta beste udal guneen artean bada harremanik, bai aurrez aurre, bai telefonoz. Kirolddegiko harreraren, kiroldegiko gimnasioan eta liburutegian, aldiz, Udaleko gainerako langileekin elkarrizketa gutxi jasotzea aurreikusten da. Izan ere, batetik, guneen arteko urruntasuna dugu, eta bestetik, lan ordutegi ezberdinak.

4 Neurketetan jasotako benetako lagina emaitzen atalean, 12. taulan ikusgai.

- **Udal langileen erabileraren** neurketa **herritarrekiko** harremanetan:
 - 2011 urteko datuen arabera, 2 urte edo gehiagoko 3.333 herritar ditu Lemoak, eta horietatik 1.835 dira elebidunak; hau da, herritarren % 55.
 - Neurketa diseinatzerakoan, kale-neurketaren laginketa-tresna erabiltzeko hautua egin da. Izan ere, Lemoako udalaren zerbitzuak askotarikoak izanik, edozein adinetako herritarrek du harekin harremanetan jartzeko aukera.
 - Konfiantza-maila: % 95 / Errore-maila: ± 5 / Jaso beharreko gutxieneko lagina: 384 elkarrizketa.
 - Gune bakoitzean jasotako datu guztiak batu eta ustiatuko dira, beraz, 600 edo 1066 elkarrizketa jasoz gero, errore-maila jaitziko litzateke, hurrenez hurren, ± 4 edo ± 3 .
 - Neurketak 3 egunetan egin: astelehena, asteazkena eta ostirala.
 - Neurketaren iraupena: gune bakoitzean ordu 1 egunetako bakoitzean. Aurreikusitakoak baino datu gehiago jasoz gero, lagin esanguratsuagoa lortzeko baliatuko dira
 - Ordutegia: Astelehena 10:00-11:00, 11:00-12:00, / Asteartea 11:00-12:00/ Osteguna 12:00-13:00. Udaleko guneetako ordutegietan aldaketarik bada, beste ordu edo egunen bat erabiliko da. Arratsaldean egin behar den guneetan: Astelehenean 17:00-18:00 / Asteazkenean 18:00-19:00
 - Elkarrizketen hizkuntza neurtzeaz gain, udal-langilearen aldetik agurra zein hizkuntzatan izan den, eta, herritarrek euskaraz egin badu, langilea nola egokitu den ere neurtuko da.
 - Langile guztiak talde bakar gisa hartuz gero, 384 elkarrizketa izango lirateke gutxieneko lagina, eta gune bakoitzean dagoen langile kopuruaren arabera banatu dugu.
 - Elkarrizketak jasotzeko ahalik eta konbinaziorik handiena hartzen saiatuko ginateke: gune bakoitzeko pertsona guztiak, ez soilik hiztunenak egoera formal eta informalak...

9.taula: langile eta herritarren arteko elkarrietzeta lagina guneka (gutxieneko aurreikuspena ⁵)		
gunek	langileak	elkarrietzetak guztira
Udaletzeko harrera	1	26
Udaletzeko administrazioa	5	102
Hirigintza eta ingurumen sailak	3	77
Kultura, berdintasuna, gizartegintza	3	77
Kiroldegiko harrera	1	51
Kiroldegiko gimnasioa	1	26
Liburutegia	1	25
GUZTIRA	15	384

10.taula: udal langileen eta herritarren zein beste udal langileen arteko elkarrietzeta lagina guneka (gutxieneko aurreikuspena ⁵)			
gunek	langileak	Langileekin elkarrietzeta kopurua	Herritarrekin elkarrietzeta kopurua
Udaletzeko harrera	1	2	26
Udaletzeko administrazioa	5	10	102
Hirigintza eta ingurumen sailak	3	6	77
Kultura,berdintasuna,gizartegintza	3	6	77
Kiroldegiko harrera	1	2	51
Kiroldegiko gimnasioa	1	2	26
Liburutegia	1	2	25
GUZTIRA	15	28	384

Neurketarako irizpideak

Honako hauek dira neurketarako datuak jasotzerakoan kontuan izango diren irizpideak:

Udal langileek herritarrekin eta haien artean dituzten elkarrietzetetan

darabilten hizkuntza da neurtuko duguna. Neurketa horiek udalaren egoitzen barruan ematen direnean neurtuko dira. Ez dira kontuan hartuko kalean eman daitezkeen elkarrietzetak.

Hauek dira neurtuko ditugun erabilera motak:

- Udal langileek herritarrekin zuzenean dituzten harremanak.
 - Udal langileak agurrean erabilitako hizkuntza.
 - Herritarrek komunikazioa hasteko erabilitako hizkuntza (eskaera).
 - Herritarra eta udal langilearen arteko elkarrietzetaren hizkuntza.
- Udal langileen arteko zuzeneko harremanak.
 - Langileen arteko elkarrietzeta formalak eta informalak.

5 Neurketetan jasotako benetako lagina emaitzen atalean, 12.taulan ikusgai.

- Udal langileen telefonozko harremanak (kanpokoak zein barrukoak).
Udal langileak telefonoa hartzerakoan erabilitako hizkuntza.
Udal langileak telefonozko elkarrizketan erabilitako hizkuntza.

Neurketa-fitxan jaso datuak

Elkarrizketak neurtuko ditugu, eta zeharka loturiko beste daturik ere. Horretarako, fitxa berezi bakarra sortu da datuen jasotzea errazteko. Fitxa hori paperean izateaz gain, telefono bidez osatu ahalko da horretarako espresuki sortu den aplikazioaren bitartez. Horrela, datuen irakurketa bideratzeko baliagarri izango da.

Elkarrizketa bakoitza errenkada batean jaso

Elkarrizketa bakoitza neurketa-fitxaren errenkada batean jasoko da. Ordenagailu edo telefonoarekin jaso gero, datu-bidalketa bat egingo da elkarrizketa bakoitzeko.

Behaketa zuzenak emango du jaso nahi ditugun datuak

Neurketaren unean hiztunak erabiltzen duen hizkuntza jasoko da zuzenean. Ez da inkesta. Ez zaio galdetuko nola hitz egiten duen, eta ez da gure iritzirik adieraziko. Neurketaren unean behatutakoa baino ez da jasoko.

Datuen aniztasuna helburu

Demagun, zortzi pertsonako taldea, eta biren artean, egun eta ordu zehatz batean izandako elkarrizketak baino ez badira jasotzen, horien esanguratasuna mugatua izango da. Hori ekiditeko, neurketa egingo diren guneko pertsona guztien elkarrizketa anitzak neurtuko dira, eta egun eta ordu desberdinetan egingo dira behaketak. Hartara, neurketak hobeto islatuko du gune horretako errealitatea eta aniztasuna.

Datuak diskrezio osoz

Hiztunen ohiko joerak objektibo eta naturalak ezagutu nahi dira. Fidagarritasuna ahalik eta gehien bermatzeko, hiztunek ez dute jakingo une horretan euskararen ahozko erabileraren gaineko neurketa egiten ari zaienik. Datuak diskrezioz jasoko dira. Horretarako Lemoako Udalaren lankidetzeta eta babesarekin herritarrei zuzenduriko neurketa dela jakinaraziko zaie Udal langileei (ikus 3. eranskina).

Behatzaileak ez du datuetan eragingo

Neurtzaileak ez du emaitzetan eragingo, gunetik kanpoko da. Neurtzailearekin hitz egiten dutenak ez dira kontuan hartuko.

Elkarrizketa da behaketaren oinarrizko unitatea

Elkarrizketa da neurtuko dena. Beraz, hizlaria eta entzuleak pertsona berak baldin badira eta erabilitako hizkuntza aldatzen ez bada, behin bakarrik kontatuko da elkarrizketa hori, nahiz eta bitan pasatu gure ondotik. Aldiz, talde berak hizkuntza aldatzen badu, hori gertaera desberdina da, eta jaso egingo da. Bigarren elkarrizketa bat da. Pertsona horietakoren bat aldatuko balitz, hau da, norbait etorri edo joan, hori beste elkarrizketa bat izango da, eta jaso egingo da.

Ez da kontuan hartuko elkarrizketaren iraupena

Elkarrizketa motzak ala luzeak izan, ez da aintzat hartuko. Motza ala luzea, bakarra izango da. Behatzaileak ez dio erreparatuko iraupenari.

Elkarrizketak euskaraz ala gaztelaniaz dira

Behatzaileak elkarrizketen hizkuntza jasoko du: euskaraz ala gaztelaniaz. Ez du jasoko elkarrizketa bereko hizkuntza alternantzia nahasia. Elkarrizketa osoan zehar, pertsona batek euskaraz egin eta besteak gaztelaniaz erantzuten badu, bi elkarrizketa izango balira bezala jasoko da: oharren tartean bi elkarrizketak elebidunak izan direla adierazi.

Ez jaso dudazko kasurik

Neurtzaileak entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakienean, jaso gabe utzi.

Zorrotzak izango eta zintzotasuna

Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, beti behatutakoa jasoko da. Euskaltzaleon joera ekidingo da, hau da, errealitateak adierazten duena baino euskara gehiago aditu nahi izatea. Azterketa hau euskararen ahozko erabileraren egoera ezagutzeko tresna da, eta errealitatea egiazki nolakoa den jakitea dugu helburu.

Fitxa betetzeko oharrak

Fitxak paperean edo euskarri digitalean beteko dira. Paperean betez gero, elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da, euskarri digitalean betez gero, elkarrizketa bakoitzeko datu bidalketa bat egingo da. Honako datuak jasoko dira:

- Gunea, eguna eta ordua.
 - Paperean behin bakarrik, fitxa bakoitzaren goiburuan.
 - Modu digitalean bidalketa bakoitzean eguna eta ordua automatikoki agertzen dira, aldiz gunea jaso behar da.
- Elkarrizketa **telefonoz edo zuzenean** ematen ari den zehaztu.
 - Paperezkoan: ☒ idatzi dagokion gunean.
 - Modu digitalean: dagokion erantzuna hautatu, eta hurrengo itemera pasatu.
- Elkarrizketan **parte hartzen** ari direnak, Udal langilea herritar batekin/batzuekin edo lankide batekin/batzuekin. Elkarrizketa telefonoz denean, neurtzaileak udal langileari galdetuko dio. Diskrezioa lehentasunezko baldintza izanik eta Udal gobernuaren baimenarekin, herritarrei zuzenduriko neurketa dela aipatu zaie langileei (ikus 3. eranskina).
 - Paperezkoan: ☒ idatzi dagokion gunean.
 - Modu digitalean: dagokion erantzuna hautatu, eta hurrengo itemera pasatu.
- **Udal langileak** zein hizkuntzatan **agurtu** duen herritarra/lankidea: euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean.
 - Paperezkoan: ☒ idatzi dagokion gunean.
 - Modu digitalean: dagokion erantzuna hautatu, eta hurrengo itemera pasatu.
- **Herritarra/lankidea zein hizkuntzatan** hasi den **hitz egiten** udal langilearekin: euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean.
 - Paperezkoan: ☒ idatzi dagokion gunean.
 - Modu digitalean: dagokion erantzuna hautatu, eta hurrengo itemera pasatu.
- **Udal langilea euskarara egokitu** den zehaztu. Behin udal langileak agurraren bidez lehen hitza egin dionean herritarrari/beste lankideari (identifikazioa),

herritarrak/beste lankideak euskaraz eginez gero Udalak egokitzen badakien ala ez neurtuko dugu. Hau da Udalean dagoen langilea herritarren/beste lankidearen euskarazko elkarrizketara egokitzen den (euskaraz jarraitzen duen) edo ez: euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza bat.

-Paperezkoan: ☒ idatzi dagokion gunean.

-Modu digitalean: dagokion erantzuna hautatu, eta hurrengo itemera pasatu.

- **Elkarrizketa zein hizkuntzatan** ematen ari den zehaztu. Udal langilea eta herritarraren/beste lankidearen arteko elkarrizketa edo harremana orotara zein hizkuntzatan ematen den neurtuko da: euskaraz, gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean.

-Paperezkoan: ☒ idatzi dagokion gunean. Amaitu da ilara.


-Modu digitalean: dagokion erantzuna hautatu.

Amaitu da, datuak bidali. Hurrengo elkarrizketa formularioan osatu berriz, eta bidali.

- **Oharrak**

Paperezko orri bakoitzak eta formulario bakoitzak oharrak idazteko tarteak dituzte. Bertan sor daitezkeen edozein zalantza jasoko da: besteak beste: neurketari eragin diezaioketen gorabeherak, batek hizkuntza batean eta besteak beste batean hitz egin duen elkarrizketa berean.

Ikerketaren urratsak eta egutegia



Ikus ditzagun banan-banan:

Antolaketa

1. etapa: Sakontze egitasmoa antolatu eta abiatu	
Helburua	Ekintzak programatu, Lemoako Udaleko ordezkariak izendatu, harremanetarako irizpideak ezarri eta proiektuan erabiliko den metodologia eta irizpideak adostu.
Ekintzak	Egitasmoan parte hartuko duten pertsonak adostu eta izendatu. Helburua berrikusi, eta programazioa zehaztu: neurketen zein bileren egutegia aurreikusi. Neurketa egiteko irizpideak adostu. Egitasmoaren komunikazioa egin dagokion guneeetan. Parte hartuko duen ebaluatzailearentzako prestakuntza saio teoriko-praktikoa prestatu eta gauzatu. Neurketak egiteko dokumentazioa prestatu. Balorazioa, dokumentazioa artxibatu eta 1. etapa eta fasea itxi.
Emaitzak	Proiektuaren metodologia eta planifikazio zehatza jaso txostenean. Prestakuntza saioa.

Neurketa

2. etapa: Neurketak egin.	
Helburua	Landa-lana egin eta neurketak egin Lemoako Udaleko 7 guneeetan.
Ekintzak	Langileen arteko eta herritarrekiko ahozko harremanen neurketak egin 7 guneeetan, aurreko etapan adostutako irizpideen arabera. Neurketen zehar izandako gorabeherak aztertu, eta, behar izanez gero, neurketa gehiago egin. 2.etaparen balorazioa Udal bitartekoari komunikatu eta 2.etapa itxi.
Emaitzak	Datuak jasota.

Ustiaketa

3. etapa: Datuak ustiatu eta emaitzak aurkeztu.	
Helburua	Datuak ustiatu eta emaitzak lortu.
Ekintzak	Datuak ustiatu, emaitzak atera eta txostenean jaso. Udal bitartekariari emaitzak aurkeztu. 3.etaparen balorazio egin eta Udal bitartekariari komunikatu. 3.etapa itxi.
Emaitzak	Metodologia eta emaitzak txostenean jaso.

Itxiera

4. Etapa: Neurketa aldia ebaluatu eta itxi.	
Helburua	Neurketa aldi osoa baloratu eta itxi.
Ekintzak	Udal bitartekariarekin proiektua baloratu eta aurrera begirako aukerak aztertu. Balorazioa, dokumentazioa artxibatu eta 4. etapa itxi.
Emaitzak	Egitasmoaren sakontze egitasmoan ondorioak eta proposamenak txertatu.

Egutegia

	2016																							
	martxoa					apirila				maiatza				ekaina					uztaila					
	1	2	3	4	5	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	5	1	2	3	4		
1. etapa																								
2. etapa																								
3. etapa																								
4. etapa																								

5- EMAITZAK

5.1- EMAITZA OROKORRAK

Landa-lana

Metodologian aipatu bezala udaleko hurrengo zazpi gunek eta orduetan egin dira neurketak. Udalaren baimena eta laguntzarekin diskrezio osoz bideratu dira neurketak. Udaleko guneen ordutegira egokitu dira neurketa aldiak, beti ere langilearen jardunean eragin gabe.

11. taula: neurketen gunek eta datak

- **Goizez:** udala harrera; udala administrazioa; kultura, berdintasuna eta gizartegintza; eta; ingurumena eta hirigintza.
- **Goizez eta arratsalde:** kiroldegia harrera; kiroldegia gimnasioa; eta liburutegia.

APIRILA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
4 Harrera Udala	5 Administrazioa	6	7	8
11 Liburutegia	12 Harrera Udala	13 Administrazioa	14	15
18	19 Liburutegia	20 Harrera Udala	21 Administrazioa	22
25	26	27 Liburutegia	28	29

MAIATZA				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
2 Ingurumena hirigintza	3 Kultura, berdintasuna, gizartegintza	4 Kiroldegiko gimnasioa	5	6
9 Kiroldegiko harrera	10 Ingurumena hirigintza	11 Kultura, berdintasuna, gizartegintza	12 Kiroldegiko gimnasioa	13
16	17 Kiroldegiko harrera	18 Ingurumena hirigintza	19 Kultura, berdintasuna, gizartegintza	20 Kiroldegiko gimnasioa
23	24	25 Kiroldegiko harrera	26	27


Lagina

Gune bakoitzean ordu bateko hiru neurketa egin dira eta neurketaaldi bakoitzeko hurrengo elkarriketa kopurua jaso da.


12. taula: jasotako elkarriketak gunea: neurketaaldi bakoitzeko, eta, aurreikusitako laginak					
	Aldi bakoitzeko neurketak				Elkarriketa lagina
Gunea	1.	2.	3.	guztira	guztira
Udaletxeko harrera	16	13	19	48	26+2
Udaletxeko administrazioa	29	41	14	84	102+10
Hirigintza eta ingurumen sailak	21	27	15	63	77+6
Kultura, berdintasuna, qizarteqintza	13	11	25	49	77+6
Kiroldegiko harrera	17	26	17	60	51+2
Kiroldegiko gimnasioa	33	26	28	87	26+2
Liburutegia	14	22	10	46	25+2
Guztira	143	166	128	437	412

Adostutako metodologian oinarritua orotara (herritar eta lankideen artekoak) 412 elkarriketa neurtzea adostu da, aldiz, eta 437 elkarriketa jaso dira. Orokorrean, aurreikusitako lagina baino 25 elkarriketa gehiago jaso dira.

Metodologiari jarraiki, gune bakoitzeko elkarriketa kopurua kalkulatzeko gune langile kopurua hartu da abiapuntu. Beraz, eta kontuan izanda langileen arteko elkarriketez gain, herritarren arteko elkarriketak ere neurtu direla; bada, aurreikusitako lagina eta lortutako elkarriketa kopuruen artean alde dago. Hala ere, balizko kopuru esanguratsua lortu da.




Jasotako elkarriketa kopurua gunea aztertuz gero, kiroldegiko gimnasioa eta Udaleko administrazioa izan dira elkarriketa gehien jaso duten guneak. Horra elkarriketa kopurua gunea.



Elkarrizketetan Udal langileen ahozko erabilera neurtu da, hala, langileen arteko harremanetan, nola, herritarrekikoenetan. Horrela, 437 elkarrizketa horietatik Udal langileak herritarrekin izandakoak 280 izan dira, eta 150 beste Udal

langileekin. Hortaz, udal langileen arteko euskararen ahozko erabilera aztertzeke lagina egokia da.

Udal langile eta herritarren zein beste udal langileen artean eman diren 364 elkarrizketa bi pertsonen artean aurrez aurre eman dira. Hots, Udal langilea eta herritarren bat; edo bi Udal langileren artean. Telefonoz eman diren elkarrizketak ere bi pertsonen artekoak



izan dira. 2 pertsona baino gehiagok parte hartutako elkarrizketa kopurua oso txikia izan da.


Elkarrizketetan neurgai dugun Udal langileaz gain, beste pertsonaren euskara ezagutza aztertu da. Behaketa bidez oinarritutako neurketa honetan telefono bidezko elkarrizketetan beste aldean dagoenaren euskara maila ezagutzerik ez dago. Hala, telefonoz emandako 45 elkarrizketa horiek kanpo utzita, udal langileekin hitz egin duten herritarren eta beste udal langileen % 75 euskalduna da.

13. taula: herritarra eta beste udal langileen ahozko ezagutza

euskalduna	288	75.2%
ia-euskalduna	49	12.8%
erdalduna	61	15.9%
Otro	0	0%

Emaitzak

13. irudia: elkarrizketen agurra, hasierako hizkuntza, egokitzeko eta harreman hizkuntza, %



Jarraian Udal langileek herritarrak zein beste udal langileak artatu bitartean erabilitako ahozko hizkuntzaren emaitza orokorrak ditugu. Zehazki, Udal langileek agurtzeko erabilitako hizkuntza; herritarrak edo beste langileak hasieran erabili duen hizkuntza; Udal langileak egokitzeko erabili duen hizkuntza; eta azkenik, elkarrizketaren harreman hizkuntza. Udal langileek udaleko hizkuntza irizpide eta ordenantzei jarraiki, lehen hitza euskaraz zuzentzen dute neurri handi batean (% 86).

Bestalde, herritarren edo beste Udal langileen ia % 57k agurrari euskaraz erantzun dio. Antzeko proportzioan egokitu da udal langilea herritarraren edo beste Udal langilearen hizkuntzara. Azkenik, elkarrizketen erdia baino gehiago euskaraz eman dira.

Eraitza orokorren ondorio nagusiak

- Metodologian aurreikusitako lagina baino elkarrizketa gehiago lortu dira, 437 zehazki.
- Neurtutako zazpi guneetan elkarrizketa kopurua orekatua lortu da.
- Elkarrizketa gehien Udaleko administrazioan eta kiroldegiko gimnasioan eman dira. Izan ere, administrazioa da udaleko erdigunea. Herritarrekin eta udaleko beste sailekin hartu-eman handiena du. Bestetik, gimnasia herritar asko joaten da. Baina, aldiz, gimnasioko langileak udaleko beste langileekin hartu-eman gutxi du (ikus 5.taula).
- Jasotako elkarrizketen gehiengoa Udal langile eta herritarren artekoa da.
- Udal langileen arteko elkarrizketen lagina oso esanguratsua da. Metodologian aurreikusitako laginaren gainetik.
- Elkarrizketen gehiengoa aurrez aurrekoa izan da. Nagusiki, bi pertsonen artekoa.
- Aurrez aurreko elkarrizketetako partaideen % 75 euskalduna izan da; aldiz, elkarrizketa horien harremana euskaraz % 54.
- Udal langileen agurren % 85 euskaraz eman da. Gaztelan izandako gainerako horien % 83 udal langileen arteko elkarrizketetan izan dira (ikus: udal lankideekiko harremanetan atala, 38.orria). Izan ere, Udalaren agurra herritarrekiko araubidez euskaraz da.
- Udala herritarren edo beste udal langilearen hizkuntza hautura egokitu da.
- Udal langileek herritarrekin eta beste lankideekin izandako elkarrizketen erabilera formala/informala jaso ez bada ere, neurtzaileen pertzepzioa kontuan izan da. Oro har herritarrekin izandako elkarrizketen hiru laurden formalak izan dira. Aldiz, Udal langileek beste lankideekin izandako elkarrizketen erdiak inguru izan dira formalak.

5.2- EMAITZAK HERRITARREKIKO ETA UDAL LANKIDEEKIKO

Emaizta orokorren irakurketa egin ondoren, herritarrekiko eta udal lankideekiko emaitza zehatzak aztertuko ditugu. Lortutako emaitzek hainbat irakurketa eta azterketa ildo lantzeko aukera eman arren, neurketaren aztergai nagusia eta xedetaldea kontuan hartuta, Udal langileen euskararen ahozko erabilera neurtzea eta aztertzea dugu esku artean. Udal langileen ahozko erabilera bai herritarrekiko harremanetan, eta baita beste Udal lankideekikoenetan ere.


Hori horrela, bi adar nagusi aztertuko ditugu. Batetik, Udal langileek herritarrekin duten ahozko hizkuntzaren erabilera. Eta bestetik, Udal langileek beste Udal langileekin dutena.

Printzipioz, Udala bere orokortasunean unitate bakar bezala ulertuko dugu, hots, Udala izango dugu aztergaiaren oinarritzko unitatea, eta ez lanpostuak. Hala ere, lagungarria izango bada, dagokion gunea hartuko dugu erreferentzia bezala. Hortaz, Udalaren baitako 7 neurketa gunek unean uneko berezitasunen eta egoeraren arabera ere kontuan izango ditugu. Izan ere, azpimarragarria den horren irakurketa argigarriagoa, zuzenagoa eta eraginkorragoa lortu nahi da.


Herritarrekiko harremanetan

- Aukeratutako Lemoako Udaleko 7 guneetan 437 ahozko elkarrizketa jaso dira. Horietatik, 280 herritarrekiko harremanetan. Herritarrekiko elkarrizketa horietatik ia erdia % 47 (gimnasioa + kiroldegiko harrera) kiroldegian eman dira.

14. irudia: elkarrizketa kopurua guneka, %



14. irudia: elkarrizketetan pertsona kopurua, %




- Herritarrekiko ia elkarrizketa guztiak (% 85) bi pertsonen artekoak izan dira, hau da, Udal langilea eta herritarren artekoak. Beraz, udal langile eta herritarren arteko (bi pertsona) **aurrez aurreko** elkarrizketak hartuko ditugu erreferentzia bezala.

- Udalarekin aurrez aurre hartu-eman handiena duen herritar-eredua 35-49 urte bitartekoa da. Genero aldetik orekatua bada ere, udal langileekin harremanetan egondakoen % 57 gizonezkoa izan da. Herritarren adin tarte hori, herriaren datu soziolinguistikoekin alderatuko dugu. Herrian azken hamarkadan emandako hazkunde demografikoaren eraginez (ikus 3., 4. eta 4. irudiak), 35 urtetik goragokoen euskara ezagutza eta erabilerak nabarmen behera egin du.

Udalak lehentasunez eragiteko xede taldea du, eta hein handi batean, bederen, eragin gaitasun zuzena ere, 35 urtetik goragoko herritarrekin baitu ahozko harreman gehien.

15. irudia: herritarren adin tarte, %



- Udal langileak herritarra agurtzeko erabilitako lehen hitza (agurra) euskara izan da. **Aurrez aurre** (nagusiki bi pertsona) izandako elkarrizketen % 96 (228 elkarrizketa) agurra euskaraz. Udal langileek argi eta zuzen betetzen dute Udalaren harrera irizpidea.

- Ondoren, udal langilearen lehen hitza euskaraz izan eta gero, herritarren % 56k euskaraz erantzun du, eta jarraian

elkarrizketen harremanen % 54 euskaraz eman da. Udal langilea herritarren hizkuntza aukerara egokitu da bete-betean. Beraz, agurra eta elkarrizketan zehar ematen den euskara erabileraren arteko aldea handia da.


- Deigarria da, Udal langilearen agurra gaztelaniaz izan den % 4 horietan, ondorengo elkarrizketa guztiak gaztelaniaz ematea.

- 35 urte baino gutxiagoko herritarrekin izandako aurrez aurreko elkarrizketen % 65 euskaraz izan da batez beste. Gazteenak (16-24 urte) dira udal langileekin harremanetan euskara gehien erabiltzen dutenak (% 72), bere ezagutza mailatik gertu (ikus 8. eta 9. irudiak). 25-34 urte arteko herritarren euskararen erabilera % 59 da.


- 35-64 urte arteko herritarrekin egindako elkarrizketetan, berriz, % 51 izan da euskaraz. Adin tarte horretan dugu udal langileekin aurrez aurre elkarrizketa gehien dituen herritarra.

- Gogoratzuz kiroldegia dela herritarrekin harreman handiena duen Udal gunea; azpimarratu behar da Kiroldegian, harreran zein gimnasioan, emandako elkarrizketetan % 42 eta % 39 izan direla euskaraz hurrenez hurren.

16.irudia: herritarrekiko aurrez aurreko (2 pertsona) elkarrizketak euskaraz, %, (taulan balio absolutuak)




17.irudia: herritarrekin elkarrizketak aurrez aurre adin tartera, % (taulan balio absolutuak)



Udal lankideekiko harremanetan

- Udal lankideekiko harremanetan 150 elkarrizketa jaso dira. Metodologian 28 elkarrizketa aurreikusi baziren ere, dezente gehiago jaso dira. Udal langileek betetako harremanen maiztasunaren taula gogoratuz, liburutegi eta gimnasioko langileek harreman gutxi dute Udaleko gainerako lankideekin. Izan ere, eta hainbat arrazoi tarteko (lan ordutegia, guneen arteko urruntasuna...), oso hartu-eman txikia dute gune horietako langileek beste udal lankideekin. Neurketetan ere kontu bera islatu da, hiru une horietan langileen arteko elkarrizketen batura % 6 baino ez da izan, 10 elkarrizketa alegia. Eta emandako horiek Kiroldegiko Harrera eta Gimnasioaren artekoak izan dira.


18.irudia: udal langileen arteko elkarrizketa kopurua guneke, % (taulan balio absolutuak)



- Bestetik, Udal langileen elkarrizketen artean Administrazioan eman dira gehienak, 59 elkarrizketa. Hurrena, Hirigintza eta Ingurumenean; Udaleko Harreran; eta, Kultura, Gizartegintza eta Berdintasun sailetan; 37, 23 eta 21 elkarrizketa hurrenez hurren.

- Udal langileen arteko 10 elkarrizketatik 8 baino gehiago bi lankideren artekoak dira. Beraz, herritarrekiko harremanetan bezala, nagusiki bi lankideren arteko **aurrez aurreko** elkarrizketak dira.

19.irudia: udal langileen arteko elkarrizketetan pertsona kopurua,%




- Udal langileen arteko ahozko elkarrizketen % 45 emakumezko udal langileekin izan dira eta % 55 gizonezkoekin.

- Elkarrizketetako agurren % 83 euskaraz izan dira. Beraz, herritarrekiko harremanetan ez bezala (elkarrizketen agurra euskaraz % 96), lankideen arteko harremanetan, modu informal zein formalean, agurren ia % 17 gaztelaniaz da.- Agurrak gaztelaniaz izan diren horien artean, % 50 Udal administrazioan izan dira; eta % 34 Hirigintza eta Ingurumen sailetan. Kontuan izan behar da, bi gune horietan


ematen dela langileen arteko elkarrizketa kopuru handiena. Izan ere, aztergai bezala hartutako langile-laginarene erdia baino gehiago (8 langile) bi gune horietan da lanean. Horretaz gain, bi gune horietako langileek harreman maiztasun handia dute udaleko beste langileekin (ikus 5. eta 6. taulak).

- Udal langileen arteko elkarrizketen % 58 euskaraz izan da. Aldiz, Udal langileek herritarrekiko ahozko harremanetan % 54 da euskaraz. Udal langileen ahozko harremanen, bai herritarrekiko bai beste Udal langileekiko, portzentajeaz ez dago alde nabarmenik. Ordea, herritarren

euskararen ezagutza mailaren (% 54) eta udal langileen (% 100) ezagutza mailarekin erkatuz gero aldea nabarmena da. Beraz, alde handia udal langileen ezagutza eta udal langileen arteko euskararen erabileraren artean (ikus 20.irudia).



- Harreran eman da elkarrizketa gehien euskaraz, % 91. Aldiz, Hirigintza eta Ingurumen sailean gutxien, % 27. Hirigintza eta ingurumen sailerako elkarrizketa formalek zailtasun tekniko gehigarria dute beste sailekin alderatuz. Beraz, harreman formaleko elkarrizketetan euskararen erabilera areagotzeko berariazko formazioan ere jarri beharko da arreta.



- Udal langileen arteko elkarrizketa askotan kontu formal eta informalak berbaldi berean ematen dira. Horri lotuta, berbaldi horietan hizkuntza kode-aldaketa (hizkuntza bat baino gehiago txandakatuz) edota kode-alternantzia (esaldi berean euskara eta erdara nahastea) ematen da, baina hurrena pixkanaka hizkuntza bakarra nagusitzen da kontu informalak zein formalak aipatzeko. Nagusiki hori da ahozko harremanetan gaztelaniaren ibilbidea udal langileen elkarrizketetan.

Herritar eta udal lankideekiko emaitzen ondorio nagusiak

- Udal langileek herritarrekiko eta beste Udal langileekiko elkarrizketa lagin kopuru egoki eta esanguratsua lortu da.
- Herritarrekiko eta lankideen arteko elkarrizketa gehienak aurrez aurreko bi pertsonen artekoak dira.
- Herritarrekiko harremanetan, tipologia 35-49 urteko herritarra da. Herritar tipologia hori da, soziolinguistikoki euskararen erabilera eta ezagutza aldetik, herrian gehien erdaldundu dena.
- Herritarrekiko harremanetan kiroldegia da harreman kopuru handiena duen udal gunea. Kiroldegiko bi guneetan, harrera eta gimnasioa, elkarrizketetako euskararen erabilera ahula da, batez bestekoaren azpitik. Harrerako elkarrizketen iraupena motza da.
- kiroldegiak eta liburutegiak ia ez dute Udaleko beste lankideekin ahozko harremanik.
- Udal langileak euskaraz gehiagotan agurtzen du herritarra udal lankidea baino.
- Udal langileek herritarrekin eta beste udal lankideekin izandako elkarrizketetako euskararen erabileran ez da alde nabarmenik jaso, elkarrizketen erdia baino apur bat gehiago izan dira euskaraz. Aldiz, gogoratzekoa, udal langileen euskararen ezagutza-indizea %100 dela, eta orokorrean udalerrriarena %54.
- Udaleko langileen beraien artean euskararen ezagutza eta ahozko erabileraren artean aldea handia da.
- Euskararen erabileraren gaineko Udal langileen pertzepzioa benetako erabileraren (neurketako emaitzak) gainetik da.
- Telefonozko elkarrizketek pisu gutxi dute langileen eta herritarren zein lankideen artean.
- Udal langileen arteko elkarrizketa gehien administrazioan ematen dira.
- Emaitza orokorretan jasota: *Udal langileen agurren % 15 gaztelaniaz dira.* Horietako gehienak udal langileen arteko elkarrizketetan emandakoak dira.
- Udal langileen arteko euskarazko elkarrizketa gehien (ehunekotan) harreran ematen da. Gutxien, berriz, Hirigintza eta Ingurumen sailean, ondoren administrazioan.

6- HAUSNARKETA eta PROPOSAMENAK

Lemoako Udalak bere toki erakundeko langileen ahozko erabileraren neurketari bide emanek, eta ondorioz esku artean dugun sakontze egitasmoa babestu eta laguntza luzatuz; eta era berean; batetik, Lemoako Udalerriko eta udal langileen diagnostikorako hurbilpenaren ondorioak, eta bestetik, Udal langileen ahozko erabileraren neurketaren emaitzak kontuan hartuta aurrera begirako lan-ildoak edo proposamenak luzatuko ditugu jarraian. Beti ere, eta kontuan izanda sakontze egitasmo honetako emaitzek hainbat lan-ildorako bide eman, sakontze egitasmo honen xedera egokitutako aurrerabideak proposatuko dira jarraian.

UDALAREN EUSKARA LIDERGO-KATEA INDARTU ALDERA EUSKARARI BURUZKO DISKURTSO BERRIRANTZ

Udal langileen arteko euskara sarea eta norbanako zein taldekako lidergoa sustatzen jarraitzeko alez ale erein behar da bide hori. Sarea euskaraz bada, udalak eragin handia egin dezake herritarrengan. Horretarako aukerak sortu eta Udal langileak aldaketaren parte bihurtzera gonbidatu eta seduzitu behar ditu. Horretarako, euskararen sustapena indartu aldera, jakina da egun darabilgun diskurtsoak ere berri beharra duela; zaharkitua geratu dela, alegia.

Langileen ebaluazioa kontuan hartuz aurre-baldintza egokiak badira, eta horiei behar besteko eraginkortasuna eta zukua ateratzeko Udalaren eta era berean euskararen diskurtsoak egungo langile eta herritarren errealitate eta beharrezanetara egokitzea behar du.

Lemoako Udalerriaren errealitate soziolinguistikoa eraldatu egin da aztergai dugun hamarkadan 2001-2011. Horretaz gain, inguruko etengabeko dinamikek, bilakaera teknologikoek, gorabehera ekonomikoek, aldaketa kulturalak, migrazioek eta abarrek baldintza eta ikuspegi berriak ezarri dizkiote Lemoako Udalerriari zein Euskal Herriko hizkuntza-egoerari. Lehen errealitatea ulertzeko baliagarria zen diskurtsoak, egun ez du eraginkortasunik; hau da, ez da bezain egokia, ezta urrik eman ere. Munduan aniztasunak hartu duen tokia adierazgarria da oso, zehazki kultura eta hizkuntza-aniztasunak.

Horregatik, euskararen egoera eta, oro har, euskara bera ulertzeko jarrera aldatu egin da, paradigma zabalagoetatik irakurri eta ulertu behar dugu. Orain arteko planteamenduak baztertu gabe, egokitu eta berritu aldera jo behar du Lemoako Udalak ere, hau da, haize berrietara egokitu eta Udal langile zein herritarrek diskurtso berriaren muinean kokatu.

Hori horrela, herritarren balio linguistikoak ikertzen jarraitu behar du. Philip Kotler-ek gomendatu zuenez, *lehendabiziko gauza da jakitea zer den baliotsua eta garrantzitsua jendearentzat: kontua ez da erakunde sustatzaileak jendeari esatea zer izan beharko litzatekeen garrantzitsua beraientzat, baizik eta (a) egiatan jakitea zer den garrantzitsua jendearentzat eta (b) horretaz jardutea.*

Ildo bereko diskurtsoa lantzen da enpresa munduan ere. Hizneteko ikastaroan jaso bezala, Peter Drucker-ek enpresa munduan zera proposatzen du: *estrategien abiapuntua ikertzea da, ikertzea eta ikertzea. Bezeroa nor den jakiteko, zer baloratzen duen, nola erosten duen, hori guztia jakiteko eta estrategiak prestatzeko ikerketa antolatuak egin behar dira.*

Planteamendu bertsua ere badugu framingaren literaturan arrakasta sozialaren inguruan hitz egiterakoan. Snow eta Benford-en hitzetan (1988, 198-199. or.), *mugimendu sozialaren eta gizartearen markoen (edo diskurtsoen) arteko lerrokatzea eta erresonantziak gertatu behar dira: kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren markoekin (interesak, balioak, sinesmenak) norabide berean lerrokatzen denean eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean; bestela ez du arrakastarik lortzen.*

AHOZKO ELKARRIZKETAK

Lemoako Udaleko Udal langileek (euskal hiztunak) beraien arteko harremanetan, nola herritarrekikoenetan erregistro guztiak menperatzen ez dituztenean (formala eta informala, naturala eta kulturala, ahozkoa eta idatzizkoa) pitzaduren batetik arrastaka gaztelaniarako joera erakusten dute; eta hori sarritan ahozko harremanaren ohitura bihurtu da, batez ere euskara ezagutza erregistro formalean baino jaso ez dutenengan. Udal langileek lanean zein eremu pertsonalean euskararen erregistroetan hutsuneak dituztenean komunikazioak adierazgarritasuna zein naturaltasuna galtzen du. Galera hori are nabarmenagoa da pertzepzio aldetik, erregistro edota ñabardura gutxikoa dela ulertuz. Halako egoera eta pertzepzioetan murgilduta dauden langileak, kasu honetan bederen, adierazkortasunarekin komunikatu behar direnean (sentimenduak, emozioak, kontu pertsonalak eta sakonak) gaztelaniara jotzen dute. Izan ere, erosoago eta errazago komunikatzen diren pertzepzio dute. Lemoako Udalean hori detektatu bada ere; lantzea, aztertzea eta eragitea falta da. Gauza jakina da gizartean euskaraz hitz egiterakoan beldurra eta lotsa bezalako sentimenduak oso errotuta ditugula; ustez euskaraz hitz egiteko oztopoa da hizkuntza ondo menperatzen ez dutenen artean.

Euskara ohiko eta eguneroko komunikazio hizkuntza den harreman-sare informal eta naturaletan integratu eta erabateko komunikazioa (sentimenduak, emozioak, kontu pertsonalak eta sakonak) landu behar da: akatsak egin eta zuzendua izateko lotsarik gabe. Euskara modu puntualean (formaltasunean) baino gertuko modu informalean landu behar da, hots, informaltasun/naturaltasuna intentsitatez eta modu jarraituan komunikatu. Lemoako Udaleko formazio planari eraginkorra izan dakioke elkarrizketa informalaren lanketara zuzenduriko formazio saio edo ikastaroak. Bide horretan euskararen erabilera langileen laneko zein bizitzako bizipenekin lotu eta sentimenduak eta emozioak komunikatzeko tresna eraginkorra ere badela ikusarazi. Eta ere berean, ohitura berriak (euskarazko elkarrizketa naturalak) sortzeko bide emateko aukera zabaldu.

Horrekin lotuta, langile berrien kasua ekarriko dugu. Euskaldunen arteko hasierako harremanetan erabiltzen den hizkuntza, aurrerantzean komunikatzeko erabiliko den ohiko hizkuntza bihurtzen da, batez ere, hasierako komunikazio hori intentsitate

handiko testuinguru batean gertatzen denean. Horrelako adibiderik bada Lemoako udalean eta epe laburrean gehiago espero dira. Adibidez, harreraren langile aldaketa eman da orain gutxi. Langilea bere jardunean euskaraz mintzo da, eta beste udal lankideekin badu harremanik (2. harreman geruzan, ikus 5. eta 6. taulak), intentsitate ertaina. Horrela, Udal langileek bere aurretik zegoen lankidearekiko ezarrita zuten hizkuntza-ohitura (gaztelania) aldatzen hasi da lankide berriarekin. Lankide berria eta beste lankideen arteko harremana euskaraz finkatu baita hasieratik. Hala ere, beste udal langileen arteko hizkuntza erabilera ohiturak (gaztelaniaz) gertutik zaindu behar dira. Izan ere, langile berriak erabilera ohitura horien inertzia har dezakete. Aipatutako aldaketaren adibide dugu Udaleko Harrera izatea udal langileen arteko euskarazko elkarrizketa gehien jaso duen gunea.

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKO BERRIA

1-Herrian 2001-2011 urteen arteko aldaketa demografikoarekin batera emandako aldaketa soziolinguistikoaren aurrean, hurrengo 2018-2023 Euskararen Plan Estrategikoan emandako aldaketak kontuan hartzea. 2016ko Lemoako udalerriko Mapa Soziolinguistikoan ez da aldaketa nabarmenik espero, aztergai izandako hamarkadako egoera aurreikusten baita. Horregatik, sakontze egitasmoan detektatutako hurrengo gako edo xede-taldeak Euskararen Plan Estrategikoan kontuan hartzea proposatuko dugu:

- Etxeko euskararen erabilera nabarmen jaitsi da helduen artean 25-49 (ikus 3. taula). Horietako asko guraso ditugu, eta etxeko euskara transmisioaren arduradun. Plan Estrategiko berrira begira aukera egokia izan daiteke aztergai dugun hamarkadako etxeko euskararen transmisioan eman diren aldaketek haurren hizkuntzaren erabileran izandako ondorioak aztertzeke; eta era berean, euskararen erabileraren gainean umeei jasotako sozializazio arauak aztertzeke. Herriko biztanleria kopurua herena handitu da hamarkada batean, nagusiki 30-45 urte artekoak kontuan hartzea.
- Goiko adin tarte horietan, 55 urte arte luzatuz, erdaldundu da herria nagusiki, bai ezagutza eta bai etxeko erabilera aldetik (ikus 7. eta 8. irudiak). Lehenetasunez eragin beharreko xede-taldea da.
- Kiroldetgia da herritarrekin harreman handiena duen udal gunea (udaleko

langileekin ematen diren ia elkarrizketen erdiak), ondorioz lehentasunez eragiteko xede taldea dugu. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren eskutik Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoari (ESEP) jarraiki, Kirola eta aisia dira erabilera informalerako gune oinarritzkoenetakoak. Kiroldegira joaten den pertsona eredia aipatu berri dugun 30-45 urte bitarteko herritarra da. Horretaz gain, herritarrekiko harremanetan neurtutako udal guneetan euskararen ahozko erabileraren emaitza txikienak jaso dira kiroldegian. Lehentasunezko gune bezala artatu behar da.

Udalerri mailako KALE NEURKETA

Lemoako Udal langileen ahozko erabileraren neurketetako emaitzetan ikusi bezala, udalerria soziolinguistikoki aldatu da, eta era berean hainbat udal guneetako Udal langile eta herritarren ahozko elkarrizketak gaztelaniaz ematen direla jaso da. Horrekin batera, Udalerriko biztanle berrien, hau da hamarkada batean ia %30 handituz, etxebizitzak kokatutako guneak zeintzuk diren identifikatuta ditugu. Horiek guztiak, eta dagoeneko beste iturri batzuetatik detektatutako gune kritiko (ikastetxeko sarrera, futbol zelaia, jubilatuen etxea, taberna multzo bat...) horietan herritarren arteko kale neurketa egitea proposatu nahi da. Horrek, aurrera begirako neurriak hartzeko aukera ezin hobe emango lioke Udalari. Eta proposatutako kale neurketa oso lagungarria izango litzateke Plan Estrategiko berria diseinatzeko atarian gauden honetan, neurri ahalik eta eraginkorrenak adosteko.

IKASTARO eta TAILERRAK

Udal langileen ezagutza egokia dela jakin badakigu. Hala ere, ezagutza hori ez da erabilera islatzen. Horretaz gain, langileen euskararen erabileraren pertzepzioa (ikus 9. taula langileen mintzagrama), benetako (emaitzetan jasotakoa) erabileraren gainetik dago nabarmen. Eta langileen AMIAN ikusi bezala, langileek euskararen erabilera handitzeko jarrera eta konpromisoa badute. Hori guztiori kontuan hartuz, eta

udal gobernuaren babesarekin, eta unean uneko udal baliabideen arabera (Lemoako Udala txikia baita), erabilerari begirako sentsibilizazio, motibazioa... ikastaro eraginkorrak martxan jartzea; ezagutza hori islatuko duen ohitura berriak sortzea alegia.

Horren harira, 2015ean Soziolinguistika Klusterraren eskutik “eusle” metodologian oinarritutako Aldahitz ikerketa-programa martxan jarri zen, eta langileek oso ondo baloratu zuten. Aldahitz ikerketa programaren helburua langile-sail jakinetan euskaraz gehiago egiteko aukera emango duen dinamika bat sortzea da. Hori aipatuta, metodologia-ildo bereko aukerak aztertzea eta martxan jartzea proposatu nahi dugu. Horretaz gain, ohitura berriak sortzeko baliagarriak izan dakizkiokeen hurrengo tailer eta ikastaroak proposatuko ditugu:

-eusLiderrak tailerra (Ahize-AEK):

3-6 saio laburrek osatzen dute eusLiderrak tailerra. Saio horietan, era egituratuan, zenbait informazio, tresna eta eredu eskaintzen zaizkie parte-hartzaileei. Horretarako hurrengo helburuak ditu oinarri:

- Hizkuntzen garrantziari buruzko informazio esanguratsua eman eta hizkuntzekiko jarrerak landu.
- Hizkuntza-lidergoa eta talde-lana indartu. Pertsona erdigunean kokatu, eta,aldi berean, taldearen eragina gure alde erabili. Saioetan taldean izan ditzakegun lider naturalei erreparatzeaz gain, berdinen arteko lidergo eraldatzailea sustatzen da.
- Eraldaketa sustatu eta portaera berriak sortu. Hau dugu helburu nagusia. Emozionalki esanguratsua izango den ekintza bidez portaera berriak lortzea.

Lortutako aldaketa hori, txikia izanik ere, emozionalki esanguratsua bada, arrakalatu egingo du orain arteko sistema, eta, ondorioz, pentsamendua berregituratu beharra ekarriko du. Pentsaera zuzentzaile berri horrek, atzetik, portaera-aldaketa gehiago eta iraunkorragoak ekarriko ditu.

Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzak EHU-UPVko Gizarte Psikologia eta Giza Portaera Zientzien Metodologia Sailaren laguntzarekin osatutako tailerra da. Metodologia lehenengo saioak Eralan egitasmoaren barruan garatu ziren.

TELP tailerra (Emun):

TELP (Taller d’Espai Lingüístic Personal) tailerra naturaltasunez eta eroso nola jokatu ikasteko da. Hobetzeko ditugun ohituretan eragiteko baliabideak eskaintzen ditu, ohitura eta esperientzia propioetan arreta berezia jarriz. Izan ere, ingurukoen hizkuntz ohiturak euskalduntzeko, lehenik norberarenak aztertu eta zuzendu beharko dira. Finean, euskaraz mintzatzeak ez digu zalantzarik sortu behar eta modu erosoan jarduteko aukera gure esku dagoela argi izan behar dugu. TELP tailerrak ez du ez dakigunik erakutsiko; duzun ezagutza beste modu batera antolatzen erakutsiko dizu.

Info gehiago: [Telp tailerra](#)

ETM_Esatetik Egitera tailerra (Emun):

Tailer honen helburua euskararen erabileran eragiten duten faktoreei buruzko prestakuntza hartzeaz gain, nork bere iritzi eta usteak azaltzea, pentsamendua garatzea da. Euskararen egoeran eragiten duten hainbat faktoreri buruz hitz eginez, pentsamendua lantzen joango gara eta aurrera begira eman beharreko pausoak irudikatuko ditugu. Hau da, esatetik egitera jauzia egiteko prestatuko gara.

Bestelako sentsibilizazio tailerrak⁶:

Lemoako Udaleko hainbat sailetako langileen euskararen erabilera areagotzea izan behar du helburua. Horrela, abiapuntu bezala elkarriketa euskaldunei eustea eta ohitura berriak sortzeko lan ildoak lantzea proposatzen da. Dagoeneko elkarlanean Aldahitz (eusle metodologia) egitasmoa eraginkortasunez garatu ondoren, aurrera begira Lemoako Udalari akuilu egokia izan dakioke Soziolinguistika Klusterra.

UDAL LEGE BERRIA: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE), kontratazio irizpideak...

2016an Eusko Legebiltzarrean onartutako Udal lege berriak; *2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa*; toki erakundeei hainbat aukera eta eskumen eskaintzen dizkio euskararen gaineko neurriak hartzeko. Euskalgintzak legearen aldeko eta kontrako hainbat ikuspuntu mahaigaineratu baditu ere, ukaezina da aukera eta neurri berriak emateko bide ematen duela. Horrela, bada, neurri horien

6 ESEP EAEko udalerrietan 2014-2015eko jardueren bilduma

muga eta baliagarritasunean sakondu gabe, arestian aipatutako aldeko haizeen norantzan jarri eta sakontze egitasmoko emaitza, ondorioekin eta aurrera begirakoekin uztartuko dut Udal lege berria.

Berrikuntza nagusia erabilerarekin lotuta: *euskararen Legeak eskatzen duen elebitasun simetrikoa malgutzen du, ondorioz hizkuntza bakar baten erabilera legezkotzat jotzen du. Euskara eta gaztelania, bata edo bestea, zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza bezala konfiguratzeko ditu legeak.*

Udal legeak 7. artikuluan ematen du euskarari lotutako eskumenen berri:

7. artikulua.– Toki-erakundeek eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.

1.– Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatetik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.

2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

3.– Udalerriek dagokie, halaber, beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen gaineko prozedura arautu eta haiek onartzea, horrek ezertan galarazi gabe Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan eta aplikatu beharrekoa den gainerako legerian ezarritakoa. Izen horien idazkeraz den bezainbatean, dagokion hizkuntzaren arau akademikoak errespetatuko dira, eta euskararen kasuan, Euskaltzaindiak ezarritako indarrean dauden hizkuntza-arauak.

4.– Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jardueren planak onartuz.

5.– Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

6.– Toki-erakundeek beren arteko harremanetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekiko harremanetan euskara gero eta gehiago erabil dadin sustatuko dute; horretarako, adostasuna bilatuko dute, eta, edonola ere, hizkuntza ofizial bat nahiz bestea erabili ahal izango dute, beste hizkuntza ofizialerako itzulpenik aurkeztu beharrik izan gabe.

7.– Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.

8.– Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trazarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu

bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:

- a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.
- b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
- c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.

Udal lege berri horri tiraka, 7 puntuan zehazki, aukera eskaintzen da Lemoan aztergai izandako hamarkadan emandako gertakariari neurri zuzentzaileak jartzeko. Gogoratu Lemoako udalerriko biztanleria ia % 30ean handitu dela, eta era berean hirigintza plangintzaren barruan etxebizitza multzo izugarria eraiki dela. Hortaz, 7 puntuak Eragin Linguistikoa Ebaluatze (ELE) prozesuari bide ematen dio. Legeak beharko lituzkeen zehaztasunik jasota ez badu ere, dagoeneko hainbat udalerritan martxan da. Gertu Tolosaldean eta Orion, eta nazioartean ere bada martxan horrelako prozesurik, Galesen adibidez. Emaizta positiboak utzi ditu, inondik ere, batetik, baliagarria dela frogatu ahal izan da; eta bestetik, lehen aldiz diziplina anitzeko adituak elkarlanean jarri ditu hizkuntzaren prebentzioaren gaia ardatz izanik. Horrekin batera, aipatu behar dugu ELE tresna bidea egiten ari dela euskalgintzan, eta dagoeneko hiru urtez jardunaldiak eman ondoren, graduondoa ere martxan jarriko dute 2016-2017 ikasturterako.

Eragin linguistikoaren ebaluazioaren (ELE) xedea lurralde eremu jakin bateko (auzo, herri, hiri, eskualde) proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea, ebaluatzea da, eta euskararen eta euskal hiztun elkarlearen egoerari kalterik eraginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzea.

Egitasmoaren abiapuntua edo aplikazio eremua, bereziki, euskararen arnagune diren herri euskaldunak badira ere, hau da egoera soziolinguistiko onean dauden eremuak, gainerako eremuetan ere aplikatu ahal izateko helburua du tresnak. Hortxe izango du Lemoako Udalak, aipatutako lege babestuta, tresna hori bere udalerrian martxan jartzeko aukera. Izan ere, laster du abian Lemoako Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berriaren diseinua martxan.

Udal lege berriarekin jarraiki, 7. artikuluko 8. puntuan kontratazio irizpideen gaineko kontua dugu. Hau da, *toki-erakundeek egiten dituzten kontratueta kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera*. Lemoako Udalak egun badu kontuan kontratazio irizpideetan euskararen erabilera eta ezagutza bermatzeko baldintzak jartzea. Baina, aldiz, baldintza horien jarraipenerako hutsunea nabaritu du.

Horrela bada, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskutik proposatutako *“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak egiten dituen kontratueta euskararen erabilera eta ezagutza sartzeko oinarri orokorrak ezartzen dituzten jarraibideak”* jarraibideek beste ate bat zabal dezakete euskararen erabilera eta ezagutza areagotzeko Lemoako Udalak egiten dituen orotariko kontratazioetan txertatzeko. Horrela bada, eta besteak beste, Lemoako Udalak detektatu eta arestian aipatutakoari irtenbide atera nahirik, kontratazio irizpide edo klausulen jarraibiderako eta segimendurako azken puntuan hurrengoa proposatzen du Sailburuordetzak:

1-Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio jarraibide hauek ezarritako hizkuntza-baldintzak betetzen diren aldi behin ebaluatzea, bai kontratua gauzatzen den bitartean eta bai gauzatu eta gero.

2-Segimendua eta ebaluazioa egin ahal izateko, kontratazio organoek, sinatzen duten kontratu bakoitzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatzen duen fitxa beteko dute, eta betetako fitxak Sailburuordetzara bidaliko dituzte eskatzen zaienean.

7- EMAITZA TAULA eta ERANSKINAK

Emaizta taula

Gunea	Elkarrizketan parte hartu dute udal langileak eta...	Hiztun kopurua	Herritar edo beste udal langileen ADINA	Herritar edo beste udal langilearen/en SEXUA	Herritar edo beste Udal lankidea/k: euskalduna, ia-euskalduna, erdalduna	Udal langileak AGURTZEKO erabili duen hizkuntza	Herritarrek/ beste lankideak HASIERAN erabili duen hizkuntza	Udal langileak EGOKITZEKO erabili duen hizkuntza	HARREMAN hizkuntza	OHAR RAK:
Hirigintza/ ingurumen sailak	Herritarra/k	2 pertsona	35-49	emakumezkoa/k	euskalduna	Euskara	Euskara	Euskara	Euskara	
Hirigintza/ingurumen sailak	Herritarra/k	telefonoz				Euskara	Gaztelera	Gaztelera	Gaztelera	
Hirigintza/ingurumen sailak	Beste udal langile bat/batzuk	2 pertsona	50-64	gizonezkoa/k	euskalduna	Euskara	Gaztelera	Gaztelera	Gaztelera	
